

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4738

EBAZPENA, 2014ko urriaren 15ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduan ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena. Agindu horretan Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroyen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei laguntzak ematen dira (BERC Programa).

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Agenteei laguntzak emateko (BERC programa) arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduak honakoa xedatzen du: ebazpenaren berri banan-banan emango zaie eskatzaileei, nahiz eta, publizitate-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko den, adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko diru-laguntza ematen zaien.

Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroyen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Agenteei laguntzak emateko (BERC programa) arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduaren 13. artikuluko 5. puntuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak honako hau

EBAZTEN DU:

Artikulu bakarra.– Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroyen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Agenteei laguntzak emateko (BERC programa) arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduan ezarritako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzea, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren ebazpenaren arabera. Diru-laguntzak honekin batera doan eranskinean zehazten dira, eta esleipendunei jakinarazi zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 15a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

2014ko azaroaren 6a, osteguna

ERANSKINA

BERC PROGRAMAKO ONURADUNAK (2014-2017)

Entitate Onuraduna	IFK	2014 (€)	2015 (€)	2016 (€)	2017 (€)	GUZTIRA (€)
Asociación BC3 Basque Center for Climate Change – Klima Aldaketa Ikergai	G95532826	1.289.269	1.128.526	1.054.188	1.161.185	4.633.168
Fundación BCMaterials. Basque Center for materials, Applications and Nanostructures.	G95686069	631.586	536.549	529.822	628.260	2.326.217
Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa.	G95686051	1.007.745	1.789.821	1.260.725	1.192.867	5.251.158
Asociación BCAM Basque Center for Applied Mathematics.	G95543526	1.363.631	1.373.224	1.378.593	1.466.149	5.581.597
Asociación BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language.	G20988929	1.934.724	1.640.975	1.536.877	1.689.025	6.801.601
Fundación Donostia International Physics Center.	G20662292	960.146	969.747	1.087.470	989.239	4.006.602
Fundación Biofísica Bizkaia / Biofísica Bizkaia Fundazioa.	G95453775	785.217	713.122	721.629	863.305	3.083.273
Asociación de Investigación MPC Material Physics Center.	G20998720	1.135.475	952.777	884.842	931.062	3.904.156
Basque Center for Macromolecular Design and Engineering. Polymat Fundazioa.	G75067454	892.207	895.259	1.545.854	1.078.908	4.412.228